

han-hemen

Porlan hautsa bota diote Shakirari Australian

Australiako gazte batek porlan hautsa jaurti zion joan den astelehenean Shakira kolonbiar abeslariari, Sydney hirian. Leku-koek adierazi zuten, abeslaria ez zen zauritu, eta Poliziak gaztea atxilotu zuen. Gaztea epailearen aurrera eramango dute laster. Oraindik ez da jakina gazteak zer dela-eta jaurti zion porlan hautsa Shakirari.

Schroederren ilearen kolorea berri ere hizpide bihurtu da Alemanian

Ez da erraz sinesteko kontua, baina Alemaniako kantziler Gerhard Schroederren ilearen kolorea egunkarietako orrialde anitz betetzen ari da Alemaniako CDU oposizioako alderdiko Angela Merkel izan da ileari buruzko azken txantxa egin duena: «Ilean kolorea emanda nago», esan zuen Merkelek atzo, umoretsu. Izan ere, Schroederrek auzitara eraman du hedabide bat, ilean kolorea emana duela zabaltzeagatik. Garai batean Merkelek ere txantxa ugari entzun behar izan zituen, bere orrazkera nonbait ez zelako behar bezain modernoa. «Orain, berri, nire orrazkerari buruzko eztabaida bukatu da», esan zuen, berriz, Angela Merkelek.

Italiako saltxitxoi etxe baten aurpegi berria da Stallone

Sylvester Stallone Ameriketako Estatu Batuetako zinemako izarra Hollywo-



CINDY MARGOLIS / AP

Cindy Margolis modeloak bere haurdunaldia erakutsi du

Internet sareko izarra da AEBetako Cindy Margolis modeloa. Zortzi hilabete bete ditu haurdun dagoenetik, eta ekainerako espero du haurra. Ama baten gorputza erakutsi nahi izan du.



JEFF CRIDER / EFE

Marteri buruz jakin beharrekoak eskura

NASako kide Orlando Figueroak *Cyber Space 2002* egitasmoa aurkeztu zuen atzo. Haurrei zuzendutako programak, Marterekin zerikusia duten hamaika argibide eta argazki erakusten ditu.



MYUNG JUNG KIM / AP

Kylie Minogue Londresen da, Ingalaterrako Brit sarien ekitaldian parte hartzeko

Australiako abeslari ospetsu Kylie Minogue irribarretsu iritsi zen atzo Londresera, eta bere aurpegirik ederrera eskaini zion prentsari. Minoguek Brit musika sarien ekitaldian izango da. AEBetako Grammy sarien pareko ekitaldia da Ingalaterran.

odeko izarrek ohikoa ez duten lan bat betetzen ari da: saltxitxoiak iragarri. Cittero etxeko saltxitxoi italiarra oso entzutetsua da AEBetan, eta egunotan telebistako *spot* kanpaina batean iragartzen ari da. Iragarki horietako rol nagusia *Rocky* eta *Rambo* filmetako izar Sylvester Stallone betetzen ari da.

Robert Blake aktorearen auzia zinemara eramango dute

Ameriketako Estatu Batuetako Robert Blake aktorea kartzelan dago, epaiketaren zain. *Baretta* telesailiko izarri emaz-

tea hiltzea leporatu diote, eta, auziak izan dituen osagai misterioitsuak ikusita, ez da harritzekoa ekoiztetxe batek kasua azaltzeko eskubideak erosi izana. SilverCreek ekoiztetxeak dagoeneko iragarri du istorioa zinemara eramango duela, «mendeko krimena delako».

Asmakizun azokan ideiak hartu nahian dabil idazle bat

Jules Horne Erresuma Batuko idazlea Genevako Asmakizun Azokan da egunotan, bere hurrengo liburua idazteko ideiak hartu nahian.

hilberriak

ESKELAK

Gaueko 9ak arte
hartzen dira

(0034) 943 300 222




**Jexux
Artze**

Usurbildik beldu zaigu
txalapartaren botsa:
Jexux Artzeren heriotza.
Guregan bizi dadila
zure bizi-poza.

Esker onez

**Elkar-eko
adiskideak**



**Jesus Mari
Artze
Agirre**
Jauna

**Atzo bil zen, Usurbilen, 57 urte zituela, Elizakoak eta Aita
Santuaren Bedeinkapena bartu ondoren.**

— Goian bego —

Haren emaztea: Beatriz Azaldegi, seme-alabak: Irati eta Mikel, anai-arrebak: Joxe Antonio, Txaro eta Jean Paul Harreguy, Josetxo eta Mirian Iriondo, Margarita, Juan Ignazio eta M^a Jesus Ganboa, ilobak: Haritz, Jon, Eneko, Jon, Maialen, eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte GAUR LARUNBATA, arratsaldeko 6:30etan, Usurbilgo SALBATORE elizan gorputza bertan dela egingo den hiletara.

Aldez aurretik, mila esker.

Usurbil, 2002ko maiatzaren 4ean

Helbidea: Etxebeste kalea, 1